

{ koaderno } Mijo LIZARZABURU

Emakumeen gorputzen diziplinamendu lodifoboa

Lodifobia ez da bakarrik jarrera edo irain bazuetan agertzen den indarkeria, gorputzen inguruan eraikitzen diren diskurtso, balorazio eta botere-egituretan txertatutako zapalkuntza forma da. Feminismoak gorputzaren inguruan sortu dituen diskurtsoek aukera ematen dute lodifobia ulertzeko ez soilik diskriminazio fisiko baten adierazpen gisa, baizik eta botere patriarkalaren tresna diziplinatzaile gisa. Zentzu horretan, lodifobia ez da soilik pertsona lodiak gutxiestea edo haien gorputza patologizatzea; lodifobiak emakumeen gorputzaren kontrol sozial eta politikoarekin du zerikusia, eta horregatik funtsezkoa da ikuspegi feministatik aztertzea.

Gorputzaren inguruko irudikapenek eta arauak ez dute inoiz funtzionatu estetika-kontu huts bezala. Kanon estetikoek funtzio sozial eta politiko zehatzak betetzen dituzte: subjektuak modelatu, kontrolatu eta hierarkizatzekeo tresna gisa jarduten dute. Susan Bordok (1993) azpimarratu zuen moduan, gorputzak gizartearen testu modura funtzionatzen du. Gorputzaren itxura, portaera eta mugak gizarteak nahi dituen ezaugarrien adierazle bihurtzen dira. Zentzu horretan, gorputz argala gizartearen kontrol mekanismoen isla da, diziplinaren, ordenaren eta egokitasun sozialaren eredu gisa funtzionatzen du. Aldiz, gorputz lodiak haustura, erresistentzia eta desegokitasunaren sinbolo bihurtzen dira.

Naomi Wolfek (1991) feminismoa eta jateko portaera transtornoak aztertzean adierazi bezala, argaltasunaren mitoak emakumeen aurkako kontrol sozialerako tresna gisa funtzionatu du, euren arreta eta energia gorputzaren etengabeko hobekuntzan zentratuz. Bere iritziz, “emakumearen edertasunaren mito” emakumeen kalterako da, emakumeak isilarazteko eta kontrolatzeko tresna. Edertasun mito horrekin

bat egiten duen argaltasuna lortu beharreko helburu estetiko bat baino gehiago da: diziplinamendu sozial eta patriarkalaren forma.

Diskurtso hauen eragina bereziki indartsua da nerabezaroan, identitate pertsonala eta soziala eraikitzen den garaian. Sare sozialen, publizitatearen eta fitness masa kulturaren bidez, nerabeek argaltasuna arrakastaren, edertasunaren eta autobalioaren sinonimo gisa barneratzen dute. Etxean, eskolan, lagunartean eta sare sozialetan ohikoa den argaltasuna lortzeko presio horrek gorputzarekiko harreman osasungaitza eragin dezake, hala nola elikadura-nahasmenduak, autokontrol obsesiboa eta autoestimu baxua.

Argaltasun mandatu horri esker, neska askok, gaztetatik, loditzeko aukeraren beldurra barneratzen dute: itsusi eta desiragaitz bihurtzearen, hau da, “ema-

«Gorputzaren inguruko irudikapenek eta arauak ez dute inoiz funtzionatu estetika-kontu huts bezala»

kume egokia” ez izatearen beldurra. Loditasuna zigortua eta lotsagarria den heinean, neskek beren gorputzak kontrolatzen ikasten dute: janariaren bidez, ariketaren bidez, isiltasunaren bidez. Horrek guztiak autozentsura eta autokontrol zorrotza eragiten ditu, hau da, emakume izateko baldintza gorputzaren diziplina zorrotz batean oinarritzen du.

Horregatik uste dugu lodia izatea ez dela drama bat, edo ez behintzat emakume argal eta polita izatea baino drama handiagoa. Loditasun queer-etatik aldarrikatzen dugu lodiok ez garela emakumeak, feminizazioak beharrezkoa duen argaltasunaren kontrol mekanismoetatik ihes egin dugulako, eta leku horretatik animatzen zaituztegu gurekin batera desobedientzia egin eta emakume izateari uztera; emakumeen gorputzen diziplinamendu lodifoboa jango dugu! •